

AUKERATU 2 ZUZENAK

Maite gelatik kanporatu dute. Azterketan isilik egon behar da.

- Maite baimenik eskatu gabe atera zen gelatik.
- Maiteren gelan azterketa bat egin dute.
- Maite gelan jaten egoteagatik kanporatu dute
- Maiteren gelan, azterketan hitz egiten dutenak kanporatzen dituzte.

Kepak lo hartu du. Ez zaizkio musikalak gustatzen.

- Kepa abenturazko pelikula bat ikustera joan zen.
- Kepa antzokira joan zen musikak bat ikustera.
- Kepa oso gustura egon da antzokian.
- Kepak nahiago du lo egitea musikalak ikusten egotea baino.

Eguraldi kazkarra zegoen. Mendi buelta atzeratu genuen.

- Tellamendira egin genuen ibilaldia nahiz eta eguraldi kazkarra egon.
- Azkenean, etxean gelditu ginen eta plana beste egun baterako utzi genuen.
- Gustura egon ginen elkarrekin mendian.
- Ezin izan nituen eguzkitako betaurrekoak jantzi.

AUKERATU 2 ZUZENAK

Elene, iluntzean, gorpila zulatu eta etxera itzuli behar izan zen menditik.

- Bazkal orduan iritsi zen etxera Elene.
- Aspertu egin zenez, etxera itzuli zen Elene.
- Ezin izan zuen gurpleko zuloa konpondu.
- Aldapan gora eta behera ibili zen bizikleta gainean.

Iratzargailua jo baino lehen esnatu zen ametsgaiztotik.

- Gustura egin zuen lo goiz hartan
- Arnas estuka eta bat batean esnatu zen.
- Iratzargailuak jo eta lasai asko altxatu zen ohetik.
- Nahiko urduri esnatu zen.

Bandera gorria jarri zuten. Afal ordua iristear zegoen.

- Itsasoa bare bare zegoen egun hartan
- Arratsaldeko 20:00ak inguru ziren sorosleak bandera jarri zutenean.
- Ezin izan ginen afal aurretik bainatu.
- Ilun - ilun zegoen azken bainua hartu genuenean.

AUKERATU 2 ZUZENAK

Kandelak itzali eta gero txokolatezko tarta jan genuen parkean eserita.

- Norbalten urtebetetzea zen.
- Txokolatezko gailetak jan genituen denok.
- Abestu eta gero probatu genuen prestatutako gozoa.
- Bere etxean jan genuen prestatutako tarta.

Haserre bizian jarri zen aita, sofa guztia tenperaz zipriztinduta ikustean...

- Semea arratsaldean sofán etzanda egon zen
- Izugarri gustatu zitzaion aitari tenperekin egindako lana.
- Semeak disgustoa eman zion aitari,
- Tenperekin sofán margotzeak arriskuak ditu.

Atzo bizkotxoa labekutzen zegoenean, jolasteko aprobe txatu genuen Miren eta biok.

- Mirenek eta nik, elkarrekin jolastu ginen atzo.
- Gustuko ditut bizkotxoak eta hauek prestatzea
- Beldurra ematen dit sukaldeko laba erabiltzeak.
- Bizkotxoa labekatu eta gero jolastera joan ginen.